




Didaktika eleaniztunaren inguruko formakuntza dispositibo desberdinak



Uzt. 03 2026

Kod. H12-26

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Uzt. 03 2026

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

Hizkuntzak

Euskara Frantsesa

Balio akademikoa

10 ordu

Antolakuntza Batzordea



Fundación
BBVA



Azalpena

Mugaz gaindiko Uda Ikastaro honek didaktika eleaniztunaren inguruan garatzen diren formakuntza-dispositibo desberdinak aztertzea eta balioan jartzea du xede.

Interreg POCTEFA AFOMEF-HEZHI proiektuaren baitan kokatzen da. HEZHI proiektuaren helburu nagusia da lurraldeko hizkuntzen irakaskuntza eta ikaskuntza sustatzea, hizkuntza-oztopoak murriztuz eta, horren bidez, mugaz gaindiko lankidetzak, mugikortasuna eta gizarte-integrazioa erraztea.

Abiapuntutzat hartzen da hizkuntza-aniztasuna lurraldearen ezaugarri estrukturala dela. Euskara, frantsesa eta gaztelania testuinguru soziolinguistiko, instituzional eta didaktiko oso desberdinetan irakasten dira Euroeskualdean, eta horrek irakasleen formakuntza, praktika pedagogikoak eta ebaluazio-ereduak baldintzatzen ditu. Egoera horrek agerian uzten du didaktika eleaniztuneko formakuntza espezifikoa, egituratu eta testuinguruetara egokitua eskaintzeko beharra.

Uda Ikastaroak formakuntza-dispositiboen aniztasuna izango du ardatz: hasierako eta etengabeko irakasle-formakuntza, prestakuntza instituzionalak, unibertsitateko ikastaroak, sare profesionalak, eta esperientzia formal zein ez-formaletan oinarritutako dispositiboak. Ikuspegi teorikoak eta praktika errealak uztartuz, ikastaroak didaktika eleaniztuna lantzeko ikuspegi metodologikoak, tresnak eta estrategiak aurkeztuko ditu, bereziki ahozkoaren didaktika, didaktika integratua eta ebaluazio-praktikak ardatz hartuta.

Uda Ikastaroa hiru mahai-ingururen inguruan egituratzen da, didaktika eleaniztunaren funtsezko arloetan garatutako formakuntza-dispositibo desberdinak aztertzeko. Lehen mahai-inguruan, ahozkoaren didaktika eta haren dimentsio soziolinguistikoa landuko dira, irakasleen hasierako eta etengabeko formakuntzan ahozko gaitasuna garatzeko erabiltzen diren ikuspegiak, tresnak eta estrategiak aztertuz. Bigarren mahai-inguruak didaktika integratua izango du ardatz, arlo ez-linguistikoaren bidez hizkuntzak irakasteko irakasleen formakuntza-ereduak eta prestakuntza-dispositiboak aztertuz. Azkenik, hirugarren mahai-inguruan hezkuntza eleaniztuneko ebaluazio-praktikak jorratuko dira, ebaluazio-irizpideak, tresnak eta horien inguruko formakuntza-ereduak aztertuz, hizkuntza-gaitasunak eta eduki akademikoak modu koherentean uztartzeko. Arratsaldeko saioan, irakasleei zuzendutako tailer praktiko bat eskainiko da, didaktika eleaniztuna ikasgelan aplikatzeko dispositibo pedagogiko zehatzak lantzeko. Goizeko mahai-inguruetan aurkeztutako ikuspegiak oinarri hartuta, parte-hartzaileek ahozkoaren didaktika, didaktika integratua eta ebaluazioa uztartzen dituzten jarduera eta sekuentzia didaktikoak diseinatuko dituzte. Tailerrak esperientzia-trukea eta hausnarketa kolektiboa sustatuko ditu, irakasleek beren testuinguru profesionalen zuzenean aplikatzeko moduko tresnak eta estrategiak eskuratzea helburu.

Helburua lurraldeko eragileen arteko elkarrizketa sustatzea eta esperientzia transferigarriak identifikatzea da, hezkuntza-espazio eleaniztun koherenteago baten eraikuntzan laguntzeko.

Helburuak

Hezkuntza eleaniztuneko modelo nagusiak ezagutzea: lurraldean indarrean diren ereduak eta esperientziak aurkeztea, haien oinarri teorikoak, antolaketa-ereduak eta testuinguru soziolinguistikoak kontuan hartuta.

Hezkuntza eleaniztunari buruzko formazioa eskaintzea: Irakaskuntza-praktikan erabilgarriak diren ikuspegi eta tresnak eskaintzea, bereziki ahozkoaren didaktika, hizkuntzaren eta gizarte-testuinguruaren arteko harremana, didaktika integratua, eta ebaluazio-praktika eleaniztunak.

Eragileen arteko elkarrizketa eta sare-lana sustatzea: Unibertsitatea, administrazio publikoa eta hezkuntza-eragileak harremanetan jarriz, esperientzien trukea eta etorkizuneko lankidetzak bultzatzea.

Lankidetzak

Zuzendaritza



Marie Heguy-Urain

Euroregion Nueva-Aquitania Euskadi Navarra

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2026-07-03 ARTE

[Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak](#)

0 EUR

ONLINE ZUZENEAN

2026-07-03 ARTE

[Mugaz Gaindiko Uda Ikastaroak](#)

0 EUR

Kokalekua

Cité des Arts. Baiona

3 Av. Jean Darrigrand, 64100 Bayonne, Francia.

Akitania